



AZTERKETAK 35

Diru-bilketa HEHn, EAEko aurrekontuak 2017an eta gizarte babesa

2017ko MARTXOA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

 MANU
ROBLES-ARANGIZ
INSTITUTUA

Diru-bilketa HEHn, EAEko aurrekontuak 2017an eta gizarte babesa

Sarrera	3
A) Diru-bilketa	4
1. Sozietate zerga bidez bildutakoa murrizten ari da lan-errentekin bildutakoa handitzen doalarik	4
2. 2002-2016 bilakaera: PFEZ altuena eta sozietate zerga baxuenetakoa	6
3. Sozietateen gaineko zergaren datu esanguratsuenak	8
4. Sozietate gaineko zergaren presio fiskala, Europako leku okerreanean	9
5. Ondorioak	10
6. Proposamenak	11
B) EAerako 2017ko Aurrekontu proiektua	13
1. 2017an aurreikusitako diru-bilketa 2007koa baino baxuagoa da: hamarkada galdua	13
2. Eusko Jaurlaritzaren eragina ekonomian gutxituz doa	15
3. Ez da murrizketarik aplikatzen abiadura handiko trenean	15
4. Zorren ordainketa lehenesten da, handitzen doan zorra	16
5. Eusko Jaurlaritzaren berezko gastua 2017an BPGaren %13,1 izango da, 2009an baino 2,2 ehuneko puntu murriztagoa	17
6. Osasun eta hezkuntzara bideratzen den aberastasunaren zatia, minimotan	18
7. Euskara sustatzeko baliabideak ez dira osotasunean erabiltzen	21
8. DSBE eta beste gizarte prestazioetan murrizketak ezartzen dira, 2008ko legearen kontra eginez	22
9. Etxebizitzara 2017an bideraturiko diru-kopurua 2009koaren erdia besterik ez da	23
10. Negoziazio kolektiborako eskubidea ukatzen da: Eusko Jaurlaritza patronal inposatzailea da	23
11. Ondorioak: aurrekontu neoliberal hutsak	23
12. Proposamenak	24
D) Gizarte babesa: murrizketa gehiago	26
1. Gizarte-babesera bideratutako aberastasunaren zatia gero eta txikiagoa da EAEn	26
2. EAEn gizarte-babeserako erabili den aberastasunaren zatia Europa mailan azken postuetan dago, EBko batez besteko mailatik oso urrun	27
3. Ondorioak	29

SARRERA

ELAk egindako Azterketak 35. ale honetan ikuskatzen dira, alde batetik, EAEko eta Nafarroako Ogasunek burutzen duten diru-sarrera eta fiskalitate politikak eta azken urteotan izan duten bilakaera. Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 2017rako proposatu duen aurrekontu proiektua aztertzen da, egoera latzena jasaten duten pertsonen bizi-baldintzak mantendu, hobetu edo okertzen dituen alor garrantzitsu batekin amaituz: gizarte babesa, hain zuzen.

Hortaz, Hego Euskal Herriko diru-sarrera publikoen era eta kantitatea aztertzen da, ondoren EAEn nola gastatzen den ikusiz, gizarte babesa era sakonean jorratuz.

Tamalez, ikerketa honek barneratzen dituen hiru arloetan politika neoliberalak aplikatu direla baieztatzen da, zerbitzu eta gastu publikoetan murrizketak ezarri baitira, kapital eta aberatsen errentei ez zaielarik eskatzen duten aberastasunaren zatiarekiko ekarpena egiteko ongizate estatuari eta kontu publikoei.

A) DIRU-BILKETA

Diru-bilketa estatuaren eta erakunde publikoen finantziazio iturria da. Horrek baldintzatzen ditu gastu eta zerbitzu publikoak eta, beraz, ongizate estatua.

Hala eta guztiz ere, diru-sarrerak lortzeko era eta kantitatea asko aldatzen dira pertsona, eragile, kolektibo eta bestelakoen ideia politiko eta interesen arabera. Gaur egungo une historikoan pertsona batzuek gastu publiko ia osoa desegin nahi dute jabego pribatua bermatzen duena izan ezik (sistema politiko, judizial eta poliziala). Hauek neoliberalak dira eta horren defentsa sutsua egiten dute abantailazko egoeran daudelako eta beraien aberastasuna handitu nahi dutelako.

Kontrako aldean gizartearen gehiengoak kokatzen gara giza eskubideak, bizi-baldintza duinak eta aberastasunaren birbanaketa defendatzen. Hori, momentuz behintzat, ongizate estatuaren bidez egiten da.

2016ko diru-bilketaren datuekin eztabaida sortu da gizartean, gaur egun dagoen zerga politikari buruz interesa piztuz. Deigarria izan da oso sozietateen zergaren inguruan jazotakoa.

Txosten honen helburua sozietateen zergaren bilakaerari eta egoerari buruzko analisia egitea da, horren baitan hartu behar diren neurrien inguruko hausnarketa eta proposamenak plazaratuz.

1. **Sozietate zerga bidez bildutakoa murrizten ari da lan-errentekin bildutakoa handitzen doalarik**


a) EAE

2016an 12.951 milioi euro bildu dira EAEn, aurreko urtean baino 338 milioi gehiago (%2,7ko hazkundera, beraz). 2016ko aurrekontuak egitean aurrikusi zena baino 544 milioi euro gutxiago bildu dira, hortaz. Guztira bildu denetik:

- Sozietate zergak soilik %7,7ko ekarpena egin du erkidegoan (1.003 milioi euro). Kopuru hori aurreko urtekoa baino 36 milioi euro baxuagoa da (edota %3,5 murriztagoa).
- 12.951 milioi horietatik %35,5 lan errenten gaineko atxikipenak dira (4.598 milioi euro), aurreko urtean baino %2,8 gehiagoko ekarpena eginez.
- Kapital errenten gaineko PFEZ bidez 260 milioi euro bildu dira eta aberastasunaren gaineko zergarekin 161 milioi.

Diru-bilketa EAEn, milioi eurotan

(Kapital errenta gisa barneratzen dira aberastasunaren gaineko zerga, ondare irabazien eta kapital etekinen atxikipenak)



Iturria: Eusko Jaurlaritza

Diru-bilketa jatorriaren arabera aztertuz, langile klaseak bere gain hartutako zuzeneko zergak 4.598 milioi euro izan dira 2016an, guztira batu denaren %35,5 esan bezala. Aldiz, kapital errentek soilik 1.424 milioi euroko ekarpena egin dute, guztiaren %11 besterik ez. Beraz, lan errentek egiten duten ekarpena kapital errenten hirukoitza da. Honek aberastasunaren banaketarekin kontrastatzen du, bi aldeek antzeko aberastasuna baitute.


b) Nafarroa

Nafarroan egoera oso antzekoa da: guztira 3.250 milioi euro bildu dira, 2015ean baino 52 milioi gehiago (%1,6ko igoeraz). Horietatik:

- Sozietate zergak %6,6 edota 216 milioi euroko ekarpena egin du, aurreko urtean baino %0,5 gutxiago (milioi bat euro gutxiago).
- Lan errenten gaineko zergak guztiaren %34,3 suposatu du (1.116 milioi euro), 2015ean baino %5,3 gehiago (56 milioi euro gehiago).
- Kapital etekinen eta ondare irabazien atxikipenek 86 milioi euroko ekarpena besterik ez dute egin eta aberastasun handien gaineko zergak 31 milioi euro.

Diru-bilketa Nafarroan, milioi eurotan

(Kapital errenta gisa barneratzen dira aberastasunaren gaineko zerga, ondare irabazien eta kapital etekinen atxikipenak)



Iturria: Nafarroako Gobernuak

Kolektibo bakoitzak egindako ekarpena aztertuz, langile klaseak bere gain hartutako zuzeneko zergak 1.116 milioi euro izan dira 2016an, guztira batu denaren %34,3. Aldiz, kapital errentek 333 milioi euroko ekarpena besterik ez egin dute, guztiaren %10,2.

Bi erkidegoetan diru-bilketan eman den hazkundera zeharkako zergen eta langileriak ordaintzen duen PFEZaren hazkundera eragin du, kapital errentek gero eta ekarpen txikiagoa egiten dutelarik.


2. 2002-2016 bilakaera: PFEZ altuena eta sozietate zerga baxuenetakoa

a) EAE

Guztira 12.951 milioi euro bildu dira EAEn, sozietateen gaineko zergaren bidez 1.003 milioi. Azken urteotan hazkunde ekonomiko nabarmena eman den arren (2016ko BPG historiako altuena izan da EAEn) eta enpresen mozkinak hazi badira ere, sozietate zerga bidez bildutakoak behera egin du: 2016an bildutakoa 2013an bildu zena baino 213 milioi euro gutxiago da eta 2007koaren erdira ere ez da iristen (urte horretan 2.034 milioi euro bildu ziren, hau da 2016an baino 1.031 milioi euro gehiago).

Sozietateen gaineko zergen gertatzen denak ez du zerikusirik diru bilketa osoan edo PFEZan geratu denarekin. Azken urteotan PFEZan eta diru bilketa osoan hazkundera eman da, sozietateen gaineko zergen gertatutakoaren kontrakoa. 2002arekin alderatuz, 2016ko diru-bilketa osoa 4.277 milioi euro handiagoa da, PFEZ bidez bildutakoa 1.967 milioitan hazi delarik. Aldiz, sozietate zerga 34 milioi eurotan murriztu da.

Sozietate zergaz bildutakoa EAEn (milioi eurotan)




Iturria: Eusko Jaurlaritza

b) Nafarroa

Honetan ere, Nafarroako egoera EAEkoaren oso antzekoa da. Guztira bildu diren 3.250 milioi euroetatik 216 milioi sozietateen gaineko zerga bidez bildu dira. Erkidego honetan ere 2016ko BPG historiako altuena izanik eta enpresen mozkinak gero eta handiagoak direlarik, sozietate zerga bidez bildutakoak behera egin du: 2016an bildutakoa 2007koaren ia herena besterik ez da (urte horretan 593 milioi euro bildu ziren, hau da 377 milioi euro gehiago).

EAEn bezala, Nafarroan azken urteotan PFEZan eta diru bilketa osoan hazkundera eman da, sozietateen gaineko zerga txikitu delarik. 2016ko diru-bilketa 1.067 milioi eurotan hazi egin da 2002arekin alderatuz. PFEZ bidez bildutakoa 452 milioitan handitu da eta, aitzitik, sozietate zerga 91 milioi eurotan murriztu da.

Sozietate zergaz bildutakoa Nafarroan (milioi eurotan)

Iturria: Nafarroako Gobernua

3. Sozietateen gaineko zergaren datu esanguratsuenak

a) Tipo efektiboa

Sozietateen zergan ematen den diru-bilketa gabezia arrazoi ugari eragiten dute: hobespeneak, kenkariak, urte ezberdinetan aurreko urteetako galerak konpentsatzeko aukerak eta abar. Teorian behintzat, %28koa da sozietateen gaineko zerga bai EAEn eta baita Nafarroan ere.

Aldiz, azken datuak ikuskatzean argi eta garbi azaltzen da hori ez dela inondik inora horrela. 2013an EAEn tasa nominala hein handi batean murriztu zen, tasa efektiboa %16,2 izanik. Hortaz, tasa nominala heren batean txikitzen da finantza tresna ezberdinen bidez, eta azken batean enpresek aitortzen dituzten mozkinen %16,2 besterik ez dute ordaintzen zerga gisa.

Nafarroan, 2014an zegoen batezbesteko tipoa %28,9koa zen, baina tasa efektiboa %16,5ean kokatu zen enpresek eskuragarri dituzten tresna eta trikimailuen ondorioz.

Sozietate zerga bidez biltzen den diru-kopuru murriztaren arrazoietakoa bat tasa efektiboaren maila baxua da, lanekoak ez diren errentetan ematen den iruzur fiskalarekin bat.

Honek zerikusia du sozietate gaineko zergan gertatzen denarekin: 2013ko azken datuen arabera, EAEn egin ziren aitortpenen %55,2 negatiboak izan ziren (galerak fiskalitateari dagokionez eta, beraz, ez zuten ia zergarik ordaintzen). Sozietateen beste %23k 6.000 euro baino txikiagoak diren mozkinak aitortu zituen. Urtez urte errepikatzen da egoera hau.

2013ko aitortpen kopurua likidazio oinarri mailaren arabera EAEn


Negatiboak	38.567 (%55,2)
0-6.000	16.016 (%22,9)
6.000-60.000	8.193 (%11,7)
60.000-300.000	3.966 (%5,7)
300.000-600.000	951 (%1,4)
+600.000	2.178 (%3,1)

Iturria: Euskadiko Zerga Koordinazio Organoa

4. Sozietate gaineko zergaren presio fiskala, Europako leku okerreanean

Europako egoerari begiratzuz (EB-28ko batezbestekoa, hain zuzen), sozietate zergak BPGaren gain duen pisua %2,5ekoa da. Nafarroan sozietate zergak duen pisua, ordea, soilik %1,2koa da eta Europa osoko baxuena da. EAEn duen pisua %1,5ekoa da, hurrengo txikiena izanik Lituania eta Esloveniarekin bat.

Kontrako lekuan Malta eta Zipre daude, %6,7 eta %5,9ko ehunekoekin. Alemanian, Estatu espainiarrean, Estatu frantziarrean edota Erresuma Batuan Europar Batasuneko pisu ia berbera du sozietate zergak (soilik ehuneko hamarreneko baten ezberdintasuna baitago estatu horietan).

Sozietate zergaren pisua BPGn (%) Europan 2015ean

Iturria: Eurostat, Eustat, Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua

Sozietate zergak Europan duen presio fiskalarekin berdintzeko, EAEn 669 milioi euro gehiago bildu behar dira urtean sozietate zerga bidez, eta Nafarroan 234 milioi euro gehiago.

5. Ondorioak

Lehenik eta behin, esan beharra dago EAEn eta Nafarroan ematen diren egoerak oso antzekoak direla, aplikatzen diren zerga eta ekonomia politikak parekideak baitira. Hori dela eta, bi erkidegoetan politika publikoak finantzatzen dituen kolektiboa langileria da batik bat.

Hori argi ikusten da langileriak soilik PFEZ bidez zergen herena baino gehiago aportatzen baitu era zuzenean bi erkidegoetan, bestelako zergak

ere ordaintzen dituelarik (BEZa besteak beste). Aldiz, kapital errenta eta mozkinak hamarrena besterik ez dute aportatzen era zuzenean.

Gainera, bilakaera okerrera doa: diru-bilketan eman den hazkundera zeharkako zergak eta langileriak ordaintzen duen PFEZaren hazkundera eragin du, kapital errentek gero eta ekarpen txikiagoa egiten dutelarik.

Horren arrazoiak iruzur fiskala (EHUK egindako txostenak 3.200 milioi euro urtean estimatzen du iruzur fiskala EAEn) eta zergarik ez ordaintzeko enpresen eskura dauden finantza tresnak dira. Sozietateen gaineko zerga tasa teorikoa murrizteko aukera ematen duten tresnak dira, %28tik %16 ingurura gutxituz zerga.

Hori gutxi balitz, Europarekiko alderatzean nabarmena da Hego Euskal Herrian ogasunek egiten dioten onura kapitalari. Nafarroan sozietate zergak duen pisua BPGan ez da Europakoaren erdira ere iristen, zentzu honetan kontinenteko egoera okerrera dagoelarik erkidegoan. EAEn ez da askoz hobe, hurrengo postu txarrean kokatzen baita Europa mailan.

Europar Batasuneko presio fiskala aplikatuz sozietateen zergari dagokionez, EAEn 669 milioi euro gehiago bilduko dira urtean eta Nafarroan 234 milioi euro gehiago.

Datuek patronalaren hipokresia azaleratzen dute, biktima bat balitz bezala errepikatzen egoten baita Euskal Herrian enpresek beste inon baino zerga gehiago ordaintzen dutela. Hori faltsua da, eta badaki patronalak. Guztiz kontrakoa gertatzen da. Patronalak eskubidea du zerga gutxiago ordaindu nahi dituela defendatzeko, baina ez du eskubiderik gezurrik esateko.

Azkenik, gizartearen partehartze gabezia nabarmentzen da arlo fiskala eztabaidatzerako orduan. Sozietateen zergari buruzko eztabaida ekidin izana, Finantzen Euskal Kontseiluaren erabakiz, patronalak gai honetan partehartzeko eta erabakitzeko eskubidea duelaren erakuslea da.

6. Proposamenak

ELAren aburuz, nahitaezkoa da neurri zorrotzak era larrian hartzea diru-bilketa handitu, gizartearen dauden ezberdintasunak murriztu eta ongizate gizartearen finantziarioa era ekitatibo eta justuan gauzatzeko.

Hori dela eta, ELA azken urteotan egin dituen proposamenak berresten ditu. Era orokorrean:

- Zerga iruzurraren aurka jotzea ikuskaritzak eta baliabideak areagotuz, zerga paradisuen erabilera oztopatuz eta botere judizial zein exekutibotik borrokatuz iruzurra.
- Zerga itzurpena deuseztatzea zerga gutxiago ordaintzeko mekanismoak kendu eta enpresa transnasionalek egiten dituzten trikimailuen kontra egin beharra dago.

- Zerga-politiken inguruko informazioa bermatu beharra dago, ikerketak sustatu eta burutu behar dira eta gizartearen parte-hartzea nahitaezkoa izan behar da politiken diseinuan.

Era zehatzagoan, sozietate zergari dagokionez:

- Tasa nominala % 35en ezartzea.
- Gutxienezko tributazio efektiboa %24an ezartzea.
- Kenkari fiskal erregresiboak mailaka ezabatzea; izan ere, zerga-sistema eta haren kontrola zaildu eta oztopatzeaz gain, kenkari horien ondorioz egungo tasa efektiboa nominalaren erdia bakarrik da.
- Familia ondare handiak zerga hau ordaintzetik salbuetsita uzten dituzten enpresa familiarrak edo holdingak osatu daitezen eragozteak. Behar bezalako arauak onestea oro har ingeniariaritzak fiskala eragozteko.
- Sozietateen gaineko Zergaren araubide bereziak ezabatzea (SICAV, atzerriko balioak dauzkaten enpresak, kooperatibak, inbertsio funtsak eta beste).
- Pertsona bakarreko sozietateak era daitezen eragozteak, horrelako sozietateak eratzen baitira, PFEZ ordaindu beharrean, Sozietateen gaineko Zerga ordaintzeko, horrela zerga gutxiago ordaintze aldera.

B) EAerako 2017ko AURREKONTU PROIEKTUA

Eusko Jaurlaritzak otsailean aurkeztu berri du 2017rako prestatu duen aurrekontuen proiektua. Aurreikusitako izapidetzea betetzekotan, aurrekontua ez da onartua izango bi hilabete igaro baino lehen.

Aurrekontuen analisia gehienetan gastuan zentratzen da. Baina kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua guztiz baldintzaturik dagoela diru-sarrerengatik eta, zehazki, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ogasunen diru-sarrerengatik.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontua hiru Foru Aldundiek bildutako zergekin finantzatzen da. Eta 2017an Foru Ogasunek egingo duten ekarpena 2016an Eusko Jaurlaritzak aurreikusi zuen berbera izango da. Era honetan, 2017ko aurrekontu politika murriztailea izango da, doikuntzak edota murrizketak aplikatuko baitira.

Horrela, EAEn kontzertaturiko zergen bidez bilduko den diru-kopuru estimatua 2017an 13.498 milioi eurokoa da. 2016an estimatu zen kopuru berbera hain zuzen; dena den, iaz diru-bilketa 12.951 milioi eurokoa izan zen, aurreikusi zena baino 547 milioi euro txikiagoa.

Diru-sarrerak handitzeko dagoen alde bakarra defizit publikoa areagotzeko aukeratik dator. Eusko Jaurlaritzak Rajoyren Gobernuarekin "adostu" zuen BPGaren %0,6ko defizita, beste erkidego autonomoei ezarri zaien berbera. 2016ko aurrekontua egin zenean BPGaren %0,3ko defizita aurreikusten zen. Bi kopuru horien arteko ezberdintasunak 2017an aurreko urtean baino 222 milioi euro gehiago erabili ahalko direla suposatzen du.


Era berean, 2017rako estimatzen den BPG 74.100,7 milioi eurokoa da, 2016ko behin-behinekoa baino %3,5 handiagoa. Kopuru hau EAEn historia guztian eman den altuena da eta, hala eta guztiz ere, diru-sarrerak ez dira handitzen.

1. 2017an aurreikusitako diru-bilketa 2007koa baino baxuagoa da: hamarkada galdua

Zerga itunduen bidez 2017rako aurreikusi den diru-bilketa (aipatutako 13.498 milioi euroak) BPG estimatuaren %18,22 beste da, 2016an baino hamahiru ehuneko handiagoa. Diru-bilketak BPGan garrantzi gehien izan duen urtea 2007 izan zen, orduan %20,88 izan baitzen.

Urte hartako presio fiskala aplikatu izan balitz ondorengo urte guztietan, bildu egin dena baino 21.504 milioi euro gehiago bilduko ziratekeen. Honetaz gain, esan beharra dago 2017ko diru-bilketa aurreikuspenak bete ezkerro (ikusi beharreko kontua), ogasunen diru-sarrerak 10 urte lehenago izan zituztenak baino baxuagoak izango direla.

EAEn zerga itunduen bidezko diru-sarrerak eta BPGan duten garrantzia



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Hori dela eta, galdutako hamarkada baten aurrean gaude: diru-sarreretan eman den galerak guztiz baldintzatu du aurrekontu politika, murrizketa eta doikuntzetan oinarritu den politika.

Diru-bilketa handiagoa izango litzateke gastu fiskalak aplikatuko ez balira (kenkariak, hobespenak, salbuespenak, desgrabazioak...), Foru Ogasunek kontzeptu horiengatik 6.057,7 milioi euro biltzeari utziko baitiote 2017an aurrekontu proiektuaren arabera.

Diru-sarreraren gehiengoa PFEZ eta BEZaren bidez lortzen da (%37,2 eta %39,4, hurrenez hurren). Sozietateen gaineko zergak, aldiz, diru-bilketa guztiaren %6,9ko ekarpena besterik ez du egiten eta zerga bereziek %11. Beste era batera esanda, PFEZan egindako atxikipenek sozietateen gaineko zergak baino 5,4 aldiz handiagoa den ekarpena egingo dute 2017an.

Zerga itunduen pisua diru-bilketan EAEn (guztiaren %) 2014-2017*

	2014	2015	2016	2017
PFEZ	35,6	36,8	37,4	37,2
BEZ	38,9	39,2	38,7	39,4
Sozietate zerga	9,4	8,2	7,7	6,9
Fabrikazio eta elektrizitate Z.B.	10,9	10,8	10,8	11
Besteak	5,2	4,9	5,4	5,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza

* 2017ko datuak aurreikuspenak dira; 2014, 2015 eta 2016koak benetan bildutako zenbatekoak.

2. Eusko Jaurlaritzaren eragina ekonomian gutxituz doa

Lortuko diren diru-sarrera horiekin eta Eusko Jaurlaritzak Abiadura Handiko Trenera aurreratuko duen dirua kontuan izan gabe (beste urte batez 350,5 milioi euro izango dira, BPGaren %0,47 hain zuzen), gastu publikora 10.709,1 milioi euro bideratuko dira. Gastu honek BPGan duen garrantzia %14,5 da eta, orotara, aurreko urtekoa baino 126,4 milioi euro handiagoa da.

Honek esan nahi du 2009an gastatu zena baino 504,6 milioi euro gehiago gastatuko direla aurrean. Hala eta guztiz ere, BPGak hazkunde nabarmenak izan dituenek, aberastasunean duen garrantzia ehuneko puntu batean gutxitu da 2009 eta 2017 urteen artean, %15,5etik %14,5era murriztuz.

Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa (milioi eurotan eta BPG %) 2009-2017*

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Gastua	10.254,5	10.160,5	9.954,9	9.898,7	9.240,1	9.826,7	10.046,5	10.582,8	10.709,1
BPGaren %	15,5	15,0	14,6	14,8	14,0	14,6	14,5	14,8	14,5

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

() Kopuru homogeneotan: AHTra bideratutakoa kenduta; 2011tik hona, enplegu-politika aktiboak kendu beharko liriteke, ez baitago horiei buruzko informaziorik.*

3. Ez da murrizketarik aplikatzen abiadura handiko trenean

Abiadura Handiko Trenaren gastua oraindik ere Eusko Jaurlaritzak aurreratzen du, Estatu espainiarreko Gobernuaren eskuduntza bada ere. Horrela, beste urte batez EAeko aurrekontuetatik 350,5 milioi euro bideratuko dira partida horretara, 2009an orotara bideratu zena baino 4,9 aldiz gehiago.

Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiar Gobernuaren gastua AHT eraikitze (milioi euro eta BPG %)

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Gastua AHTn	71,5	187,1	247,4	376,8	362,3	226,9	115	350,5	350,5
BPG %	%0,11	%0,28	%0,36	%0,56	%0,55	%0,34	%0,17	%0,48	%0,47

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Nahikoa ez badu horrekin, Eusko Jaurlaritzak AHTra bideratzen diren baliabideak areagotzeko aukera plazaratu du. Duela gutxi Ekopolek (EHUko irakasle taldea) aurkeztu duen txostenak argi eta garbi erakusten du AHTak ez duela inolako errentagarritasun ekonomikorik, ezta ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik ere.

Hau are deigarriagoa da kontuan izanik Gobernu espainiarrak ez dizkiola Eusko Jaurlaritzari aurreko urteetan aurreraturiko diru-kopuruak itzuli (1.100 milioi euro baino gehiago), Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak zehaztu duenez.

4. Zorraren ordainketa lehenesten da, handitzen doan zorra


Aurrekontuetatik AHTra bideratuko den diru-kopurua kendu eta gero, %9,7 zorra ordaintzeko erabiliko da (1.036,3 milioi euro hain zuzen, 788 kapitalean eta 248,1 interesetan). Kopuru hori 2009an erabili zena baino 13 aldiz handiagoa da: orduan, aurrekontuen %0,8 besterik ez zuen hartzen zorraren ordainketak.

Eusko Jaurlaritzaren gastua zor publikoan (milioi euro eta guztirako gastuaren %)

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Amortizazioak	61,2	123,7	169,5	174,5	199,9	479,5	686	892	788
Interesak	22,5	74,3	143,4	190,3	213,0	245,5	225,2	278,1	248,1
Guztira	83,6	198,0	312,9	364,8	412,9	724,9	911,2	1.170,1	1.036,2
Zorra aurrekontuan (%)	%0,8	%1,9	%3,1	%3,7	%4,5	%7,4	%9,1	%11,1	%9,7
Aurrekontua AHT eta zorrik gabe	10.171	9.963	9.642	9.534	8.827	9.102	9.135	9.413	9.673

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren, Eusko Legebiltzarra

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzaren zorra orotara 9.348,6 milioi eurokoa izango da, BPGaren %12,5 beste: 2016 amaieran baino 583,4 milioi euro gehiago dira eta BPGarekiko lau hamarren gehiago. Gainera, EAEko aurrekontua (AHT eta zorraren ordainketa kontuan izan gabe) guztira zor den kopuruaren ia berbera da.




Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

5. Eusko Jaurlaritzaren berezko gastua 2017an BPGaren %13,1 izango da, 2009an baino 2,2 ehuneko puntu murriztagoa

Hortaz, AHT eta zorraren ordainketara bideratzen den dirua kontuan izan gabe, EAeko aurrekontuek beheranzko joera argia erakusten dute azken urteotan. 2017koak BPGaren %13,1 izango dira.

Zehazki, BPGarekiko alderatzean Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa AHT eta zorra kontuan izan gabe, 2017ko datua azken bederatzi urteetako baxuena da (2009koa baino 2,2 puntu txikiagoa da, urte hartan %15,3 izan baitzen). 2009ko BPGaren portzentaia aplikatuko balitz 2017an, Eusko Jaurlaritzaren gastua aurrekontuetan adierazitakoa baino 1.664,5 milioi euro handiagoa izango litzateke.

Zorraren ordainketa kontuan izanik, BPGarekiko aurrekontua 2009-2017 epealdiko bigarren murriztena da, BPGaren %14,5 besterik ez baita eta soil-soilik 2013ko datua baita okerragoa (orduan %14 izan zen). 2017an BPGarekiko erlazioa 2009koa izango balitz (urte horretan %15,5 izan zen), gastu publikoa aurreikusitakoa baino 776,5 milioi euro altuagoa izango litzateke.

Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa zorra barne eta gabe (BPG %)

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

6. Osasun eta hezkuntzara bideratzen den aberastasunaren zatia, minimotan

Gastu partida nagusiak 2017an osasuna eta hezkuntza dira, 3.537,5 milioi euroekin lehena eta 2.662,6 milioirekin bigarrena. Aurrekontuen %33 bideratzen da osasunera eta BPGaren %4,8 beste da, hezkuntza aurrekontuen %24,9 eta BPGaren %3,6 den bitartean.

Eusko Jaurlaritzaren osasungintzako gastu publikoa (milioi euro eta BPG %)

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Gastua	3.508,9	3.542,3	3.415,8	3.365,4	3.300,0	3.342,4	3.429,2	3.416,2	3.537,5
BPGaren %	5,3	5,2	5,0	5,0	5,0	5,0	5,0	4,8	4,8

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Osasunera bideratzen den diru-kopurua 3.537,5 milioi eurokoa da. Alor honetara bideratzen diren baliabideak 2016arekiko 121,3 milioi eurotan hazi badira ere, ez dira zazpi urte lehenagoko mailara iristen: aberastasunetik osasun publikora bideratzen den zatia asko gutxitu da, 2009an BPGaren %5,3 baitzen eta 2017an %4,8 izango baita.

Eusko Jaurlaritzaren gastua hezkuntzan (milioi euro eta BPG %)


	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Gastua	2.824,1	2.783,6	2.715,6	2.625,1	2.462,1	2.578,1	2.560,6	2.602,7	2.662,6
BPGaren %	%4,3	%4,1	%4,0	%3,9	%3,7	%3,9	%3,7	%3,6	%3,6

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

Hezkuntzan egindako inbertsioa 2.662,6 milioi eurotakoa izango da 2017an, 2016an baino 60 milioi euro handiagoa. 2009arekin alderatuz, 162 milioi euro gutxiago bideratzen dira alor honetara. BPGaren zatia ikusirik, hezkuntzan egindako gastu publikoaren murrizketa oso nabarmena izan da: 2009an %4,3 zen eta 2017an %3,6 izango da.

Hezkuntza mailen arabera, lehen eta haur hezkuntzara 926,2 milioi euro bideratuko dira (2016an baino 23,2 milioi gehiago), bigarren hezkuntza eta Lanbide Heziketara 958,6 milioi euro (24,9 milioi gehiago) eta unibertsitatekora 316,7 milioi (5,8 milioi euro gehiago). BPGan duten garrantzia maila guztietan gutxitzen da, haur eta lehen hezkuntza BPGaren %1,29 izanik 2017an, bigarren hezkuntza eta LH %1,25 eta unibertsitatekoa %0,43.

Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa hezkuntzan mailaz maila (BPG %)




Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat

Europar Batasuneko hezkuntza eta osasunera bideratzen den gastu mailarekin alderaketa egitean, horretarako 2015eko datuak erabili behar direlarik, nabarmena da EAEko gastua murriztegia dela bi alor horietan.

Horrela, osasunera bideratzen den BPGaren zatia EAEn %5ekoa da, EB-28ko batezbestekoa %7,2 den bitartean eta Estatu frantziarra bezalako estatuek %8,2 bideratzen dutelarik. Hori dela eta, Europa osoko lekurik okerrenetan kokatzen da EAE, sei estatu baitaude bakarrik egoera makalagoan: Txipre, Letonia, Errumania, Grezia, Luxenburgo eta Polonia.

Gastu publikoa osasunean (BPG %) EB-28 2015




Iturria: Eusko Jaurlaritzak, Eustat, Eurostat

Hezkuntzara bideratzen den aberastasunaren zatia 2015ean EAEn %3,7koa da, EB-28n batezbestean %4,9 bideratzen den bitartean. Danimarkan,

besteak beste, BPGaren %7,1 da hezkuntzan gastatzen den diru-kopurua. Arlo honetan, Europar Batasuneko bigarren postu okerreanean kokatzen da EAE, Irlandaren parean, eta Errumania egonik egoera txarragoan.

Gastu publikoa hezkuntzan (BPG %) EB-28 2015



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eustat, Eurostat


Europar Batasuneko batezbestekoa berdindu ahal izateko, osasun publikora 1.797,8 milioi euro gehiago bideratu beharko lirateke eta hezkuntzara, aldiz, 968,3 milioi euro gehiago.

7. Euskara sustatzeko baliabideak ez dira osotasunean erabiltzen

Euskararen sustapenera bideratuko den diru-kopurua 105 milioi eurokoa izango da 2017an; eta aurreko urtean baino 531.320 gehiago badira ere,

BPGan duen pisua gero eta murriztagoa da (%0,0014 aurtengoan). Gainera, kontu honetara bideratzen diren diru-kopuruak urtero erabili gabe geratzen dira hein handi batean, euskararen sustapenerako aurrekontuetan adierazten den kopuruaren laurdena erabili gabe geratzen baita urtero.

Gastua euskaran BPGarekiko



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

8. DSBE eta beste gizarte prestazioetan murrizketak ezartzen dira, 2008ko legearen kontra eginez

Gizarte-prestazioetara bideratzen den baliabide kopuruak handitzeko joera erakusten du 2017an, familien kontziliaziara bideraturiko kontuak izan ezik. Horrela, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentara (DSBE) eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) 491,3 milioi euro bideratuko dira (2016an baino 30,3 milioi gehiago, %6,6ko hazkundera), Gizarte Larrialdietako Laguntzara 5 milioi euro gehiago, 27 milioi eurora iritsiz (%22,7ko hazkundera, beraz), eta kontziliaziara 31,1 milioi euro (aurreko urtean bideratu zen kopuru ia berbera).

DSBE eta EPOn emango den diru-sarreraren hazkunderak arrazoi bakarra du: 2016an kontu horietara bideratu ziren baliabideak gutxietsi egin ziren aurrekontua koadratzeko.

Alor honetan, 2008an onartu zen legean murrizketak ezartzen jarraitzen dute. Horrela:

- Beste urte batez gizarte prestazio guztien kopuruak %7 gutxitzen dira.
- DSBE ez da gutxiengo soldata minimoaren igoera (%8) aplikatzen, legeak biak lotzen baditu ere. Aurrekontuetan adierazitako hazkundera, ordea, %1,5ekoa izango da.

- Etxebizitzaren Legea garatzen bada, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria ezabatuko da, alokairurako laguntzak lortzeko oztopoak handituz.

9. Etxebizitzara 2017an bideraturiko diru-kopurua 2009koaren erdia besterik ez da

Etxebizitza alorrean 121,7 milioi euro gastatuko dira (BPGaren %0,16), 2016an baino 12,8 milioi euro gehiago eta BPGarekiko ehuneko hamarren bat gehiago, baina beste urte batzuetan baino askoz ere gutxiago. 2012an, adibidez, 24,5 milioi euro gehiago bideratu ziren.

Eusko Jaurlaritzaren gastu publikoa etxebizitzan (milioi euroak eta BPG %)

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Gastua	217,4	182,6	123,0	146,2	125,65	107,1	99,8	108,9	121,7
BPGaren %	0,33	0,27	0,18	0,22	0,19	0,16	0,14	0,15	0,16

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra, Eustat

10. Negoziazio kolektiborako eskubidea ukatzen da: Eusko Jaurlaritza patronal inposatzailea da

Eusko Jaurlaritzaren menpe dauden langileen lan-baldintzen egoerak bere horretan jarraituko du:

- Soldaten igoera %1ekoa izango da, betiere Estatuko Aurrekontu Orokorrek ehuneko hori zehazteko duten baldintzapean.
- Estatuak egiten duenaren imitazioa eskubideak mugatu edo murrizteko egiten da soil-soilik. Aldiz, Estatuak horren inguruan inolako mugarik jarri ez badu ere, BGAEra egindako ekarpenak ez dira berreskuratuko eta 2012ko aparteko ordainsariaren %25 besterik ez da itzuliko.
- Azken batean, negoziazio kolektiborako eskubidea ukatzen segitzen da. Lan-baldintzak Gobernuak aldebakarrez ezartzen ditu.

11. Ondorioak: aurrekontu neoliberal hutsak

Eusko Jaurlaritzak prestaturiko aurrekontu proiektua diru-sarrera murrizetan oinarritzen da, batez ere langileriak ordainduko dituen diru-sarrerak izanik. Gainera, Rajoyren Gobernuak ezarritako defizit mugak onartu eta betetzen ditu eta, hori gutxi balitz, Abiadura Handiko Trenaren

obrak finantzatzeko baliabideak aurreratzen dizkio aurreko urteetan aurreraturiko diru-kopurua itzultzeko eskatu ere gabe.

Horrela, aurrekontu proiektuan barneratzen diren 11.000 milioi euro inguru diren baliabide guztietatik, 351 milioi AHTrako bideratuko dira berreskuratu ez diren 1.100 milioi jada aurreratu direlarik.

Aurrekontu proiektu honek duen beste ezaugarri nagusietakoa zorraren ordainketa da, aurrekontuen ia hamarrena horretara bideratzen baita, 2009an bideratu zen kopurua baino hamahiru aldiz handiagoa izanik 2017koa. Hala eta guztiz ere, Eusko Jaurlaritzaren zor osoak hazten jarraitzen du eta jada BPGaren zortzirena beste da. Era honetan, beste 1.000 milioi euro zorra ordaintzera bideratuko dira, osotasunean ia 10.000 milioi eurotakoa den zorrera.

Honek aurrekontua era nabarmenean murriztea eragiten du BPGarekin alderatzean: 2009 eta 2017 urteen artean, Eusko Jaurlaritzaren eragina aberastasun osoan 2,2 ehuneko puntutan murriztu da, are nabariagoa dena osasun eta hezkuntzan.

Europarekiko alderaketan argi azaltzen da EAEko egoera zein okerra den: EB-28ko batezbestekoa berdintzeko, osasun publikora 1.797,8 milioi euro gehiago bideratu behar dira eta hezkuntzara, aldiz, 968,3 milioi euro gehiago. Izatez, hezkuntzara bideratzen den gastua 2009koa baino txikiagoa da eta osasunekoak soilik 162 milioi euro handiagoa.

Halaber, urriak baino urriagoak dira Euskararen sustapenera, gizarte prestazioetara edota etxebizitzara bideratzen diren baliabideak. Hezkuntzaren sustapenera bideratzen den diru-kopuruaren laurdena erabili gabe uzten da urterik urte, ezkutuko murrizketa bat besterik ez delarik. Gizarte prestazioek murrizketa sakonagoa jasan dute, beste urte batez %7ko gutxitzea ezarri baitzaie. Gainera, DSBEk beste %6,5eko murrizketa izan du gutxiengo soldatarekiko lotura kentzean.

Hau guztia dela eta, eskuliburuko aurrekontu neoliberal hutsen aurrean gaude, hau da: hasieratik langileek finantzatzen dituzten aurrekontuak dira, kanpotik ezarritako defizit muga onartzen da, ikuskatu ez den zorraren ordainketa lehenesten da, bideragarria ez den AHTrako baliabideak aurreratzen dira eta gizartearen gehiengoak pairatzen dituen murrizketak aplikatzen dira.

12. Proposamenak

ELAk honako neurriak plazaratzen ditu aurrerakoiak, berdintasunean oinarrituak eta gizarte osoaren bizi-baldintza duinak bermatzen dituen aurrekontuak egiteko:

- Diru-sarrerak handitzea dokumentu honetako aurreko atalean zehaztu den bezala.
- Bideraezina den Abiadura Handiko Trenaren finantziazioa etetea eta aurreraturiko diru-kopuruak berreskuratzea, obrak geldiaraztea eta

dauden behar eta aukerei buruzko gogoeta sakon bat gauzatzea, are gehiago hiriburuetarako sarbideen obrak hasi ez direnean eta estatu frantziar eta espainiarrarekiko konexioen datak atzeratu besterik egiten ez direnean.

- Zorraren herri ikuskaritza bat burutzea erakundeen elkarlanarekin, gardena eta loteslea izango dena, ondoren zor hori ordaintzeko egokitasuna aztertzeko.
- Gastu publikoa areagotzea planteatzen den diru-bilketaren baitan, batez ere oinarritzkoak diren osasuna, hezkuntza, euskara eta gizarte babesean.
 - Zehazki, osasuna eta hezkuntza europako batezbestekoarekin parekatu behar da, ondoren, poliki bada ere, gainditzeko.
 - Euskararen sustapenean dohain ikasteko aukera bermatu behar da, gizarte eta kultura edukien sorrera areagotuz ere.
 - Gizarte babesari dagokionez, pertsona guztiek bizi baldintza duinak izan ditzaten beharrezkoak diren tresna eta mekanismoak ezarri behar dira. Horretarako, aurretik aplikatu diren murrizketak desegin behar dira eta prestazioen kopuruak handiagotzea ezinbestekoa da hartzaileak jada dauden pobrezia egoeratik atera daitezen.

D) GIZARTE BABESA: MURRIZKETA GEHIAGO

Gizarte batean dagoen gizarte-babes maila da adierazlerik egokiena neurtzeko zer politika publiko egiten den desberdintasuna borrokatu eta solidaritatea areagotzeko. Horregatik, nazioarte mailan estatistika homogeen bat egin ohi da gizarte-babesa neurtzeko, hainbat funtzio aintzat hartuta: osasun-arreta, zahartzaroa (pentsioak barne), baliabide ezintasuna, langabezia, etxebizitza, gizarte-bazterketa, famili-prestazioak, etab.


Estatistika honi “Gizarte-Babesaren Kontuak” deitzen zaio, eta bertan islatzen da lurralde batean sortutako aberastasunaren zein zati bideratzen den arlo honetara (hots, gizarte-babesean erabiltzen den BPG portzentajea neurtzen du). Portzentaje honen gorabeherak adierazten du politikak zenbateraino diren sozialak: zenbat eta handiago izan, politikak sozialagoak izango dira; aitzitik, zenbat eta txikiago, politikak ez dira hain sozialak izango.

1. Gizarte-babesera bideratutako aberastasunaren zatia gero eta txikiagoa da EAEn

Eustat Euskal Estatistika Institutuak atera berri ditu Gizarte-Babesaren Kontuak; hauetan EAEn 2015ko egoera zein zen jasotzen da, baita bilakaera ere. 2015ean gizarte-babesera bideratutako baliabide ekonomikoak 16.938 milioi euro izan ziren, hau da, BPGaren %24,5:

- Azken urteetan zenbatekoa geldialdian sartu da: gizarte-babesera bideratutako aberastasunaren zatia ia puntu bete gutxitu da 2013tik (urte honetan BPGaren %25,4koa izan zen).
- Geldialdia espainiar Estatuko erakundeek eragin dute (pentsioen gastua hazi egin da, baina murriztu egin da langabezia prestazioena), baina baita EAEkoek ere (Eusko Jaurjaritza, Foru Aldundiak eta udalak).

EAEn gizarte-babesera bideratutako aberastasunaren zatia 2013-2015 (BPG %)



Iturria: Eustat

2. EAEn gizarte-babeserako erabili den aberastasunaren zatia Europa mailan azken postuetan dago, EBko batez besteko mailatik oso urrun

Eustatek argitaratu dituen datuak hartuta aldera daiteke EAEn gizarte-babesean egindako ahalegin ekonomikoa Europar Batasuneko beste leku batzutan egiten denarekin.


Gure agintariek eta hauek kontrolpean dituzten hedabideek sinestarazi nahi digute EAEko egoera pribilegiozkoa dela; ia munduko beste inongo parajetan ez dela diru gehiago bideratzen osasungintzara, gizarte-prestazioetara, etxebizitza politikara, etab. (honetan salatzeak da Eusko Jaurlaritzak komunikabide publikoen bidez -batez ere EITB taldea- egiten duen propaganda sutsua, bat ere oreka eta zorroztasunik gabea).

Haatik, errealitateak ez dauka zerikusirik propaganda horrekin. Datu ofizialak argiak dira. EB mailan informazioa daukagun azken urtea 2014 da; honi dagokionez, hau da nabarmendu beharrekoa:

- Batez besteko gizarte-babes maila Europan %28,7ean zegoen, EAEn baino 3,8 puntu gorago. Batez besteko maila horretara iristeko EAEn gizarte-babeserako baliabideak urtean 3.000 milioi eurotan hobetu beharko lirateke.
- EAEko gizarte-babeseko maila soilik Ekialdeko Europako herrialdeetakoak, Ziprekoa, Irlandakoa eta Luxemburgokoa baino handiagoa da. Gure gizarte-babes maila Portugal, Grezia eta Espainiakoaren azpitik dago, hauek aberastasunaren zati handiagoa bideratzen baitute.
- Europar Batasuneko beste estatu batzuekin alderatuz gero, berriz, diferentzia are handiagoa da, izugarria zenbait kasutan. Esaterako,

gizarte-babeserako Alemanian aberastasunaren %29,1 erabiltzen da; Suedian, %29,6; Belgikan, %30, eta Frantzian, %34,3. Beraz, herrialde horietan kasuan kasu gizarte-babeseko gastua ia 10 puntu handiagoa da.


Gizarte-babes maila. EAE, Europar Batasuna. 2014 (BPG %)



Iturria: Eustat

- Alde hau eurotan adieraziz gero, ondorioa da EAEn Estatu espainiarreko ahalegin ekonomiko bera egingo balitz gizarte-babesean baliabideak urtean 420 milioi eurotan gehitu beharko liritekeela; 1.400 milioitan, Portugalgo mailara iristeko; 3.570 milioitan, Italiarekin parekatzeko; 4.200 milioi Herbehereekin bat egiteko, eta 6.580 milioi Frantziaren mailara iristeko. Adibide gehiago ere eman genezake.

Europarekiko defizita EAEn gizarte babesean. Milioi euro urtean



Iturria: Eustat

3. Ondorioak

Atera daitezkeen ondorioen artean hauek dira nabarmenenak:

- EAEk europar batez besteko mailari dagokionez defizi sozial handi eta hazkorra du. Gainera, EAEko gizarte-babes maila murrizten ari dira eta, horrenbestez, gero eta urrunago jartzen batez besteko maila hartatik.
- EAEn gizarte-babesera bideratzen den aberastasunaren zatia Europar Batasuneko azken postuetan dago: doi-doian gaintitzen ditu Ekialdeko Europako estatuak, eta Portugal, Grezia edota Estatu espainiarraren atzetik geratzen da. Gizarte-babesean herrialde europar aurreratuenekiko aldea BPGaren 10 puntukoa ere bada zenbait kasutan (hots, dirutan Eusko Jaurlaritzak urtero hainbat sailetarako jartzen dirua baino gehiago: osasuna, hezkuntza, etxebizitza, DSBE, GLL, etab.).
- Defizit honek jendearen eguneroko bizimoduan eragiten du: gizarte-babesa urriagoa da, edota zerbitzu publikoek arreta eskasa eskaintzen dute (itxaron-zerrendak, gripe aldietako kolapsoak, zerbitzu publikoetako langile eskasia, osatzen ez diren bajak, etab.).
- Gizarte-babeseko maila asko hobeto daiteke. Horretarako borondate politikoa behar da. Halere, gure agintariek erabaki duten eredian gizarte-babes maila apala izango da.

- ELAk galdegiten du berehala pareka dadila EAEko gizarte-babeseko maila batez besteko europarrarekin (3.000 milioi euro urtean), aurrerago hobetu eta EBko lehen postuetan kokatu arte.
- Hau egiteko, ordea, zerga-politika aldatu beharra dago. Batez besteko zerga-presio europarrera iristeko urtean 5.900 milioi euro gehiago bildu beharko lukete administrazioek. Iaz EHUk egindako Iruzur Fiskalari buruzko Txostenaren arabera, iruzurra 3.000tik gora milioi dira urtero.